

Eskutik eskura

Dendarientzako ondorengotza programa aurkeztu dute / 4

Ur azpiko egiak, ikus-entzuleen begien aurrean

Martxan jarri dute Lasarte-Oriako Itsaspeko XVIII. Zinema Zikloa. Brontzezko saioa eginda, Zilarrezkoa eta Urrezkoa programatu dituzte hilaren 16rako eta 23rako. Horrez gain, argazki erakusketa jarri dute udaletxe sarreran eta Txikizikloa nahiz Adinzikloa ekimen bereziak egin dituzte / 9



TXINTXARRI



EGOITZ ZELAIA

'Frankopoleon. Gureak egin din' antzezlanaz solastatu gara Saioa Gomez Tejeriarekin / 2-3



Herriko atletak, Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetako lehen postuetan / 11



Basoko zomorro gizakituekin urtebeterako ituna berrituko dugu, dotore jantzita / 16

Maddi Noriega Zaldua

Euskarazko kultur sorkuntzak sustatzea helburu duen Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan ondu du KulturArteCo. taldeak *Frankopoleon. Gureak egin din* antzezlan. Bertako kide da Saioa Gomez Tejeria herritarra (Lasarte-Oria 1983), eta obraren gidoia idazteaz gain, askotariko bestelako lanak egiteaz ere arduratu da. Ekhiñe Famoso Intxaurrandieta eta Inma Koioterekin batera, jendaurreko aktore lanetan ere ikusiko dute ikus-entzuleek. Hilaren 1ean Usurbilen aurrera eramandako emanaldiaren ostean elkartu da TXINTXARRI aldizkaria sortzailearekin elkarrizketa hau prestatzeko. Bertan egoteko aukera izan zuen elkarrizketa hau idatzi duen kazetariak, eta berak eta sortzaileak elkarri hitz eman diote spoiler handiegirik ez egiten ahaleginduko direla, merezi baitu obra aurrez aurre ikusi eta norberak bere gogoetak egitea.

Geuretik Sortuak ekimenari esker oholtzaratu duzue 'Frankopoleon. Gureak egin din'.

Azken momentuan aurkeztu genuen gure proposamena egitasmo horretara. Bat-bateko bulkada baten ondorioz, azkenengo unean. Ekhiñe [Ekhiñe Famoso Intxaurrandieta] galdetu zidan ea animatuko ote nintzen; zalan-tza izan nuen hasieran, baina animatzea deliberatu nuen. Aurkeztu genuen hasierako planteamendu hura barru-barrutik ateratakoa izan zen. Bada, horixe, Euskal identitatea edo identitatei buruz hitz egin nahi genuen, zerk egiten gaituen euskaldun. Begiradak, ordea, kulturartekoa izatea nahi genuen, asko zaindu genuen hori. Aurkeztu genuena gustatu zitzairen eta beka eman ziguten.

Zein aukera ematen ditu dirulaguntza horrek?

Hori jaso eta urtebete daukazu lana osorik ontzeko. Beka horrek ona daukana da egonaldi bat egiteko aukera ematen dizula. Udalbiltzan dauden herriek, hala nahi dutenek, egitasmoarekin bat egiten dute. Gauzak horrela, guri Plentzia egokitu zitzaigun paraldia egiteko. Hiru astekoa izan zen; udan egin genituen bi eta abendurako utzi genuen hirugarrena. Hori aurrera eraman aurretik, ordea, Plentziako alkaterearekin, kultura zinegotziarekin eta Udalbiltzako kultur teknika-



Obra kulturartekotasunaren begiradatik sortzea ezinbestekoa izan da Saioa Gomez Tejeriarentzat. EGOITZ ZELAIA

"Zapalkuntzak bistarazteko distopia bat da"

SAIOA GOMEZ TEJERIA 'FRANKOPOLEON. GUREAK EGIN DIN'-EN SORTZAILEA Euskal Herriko askotariko herritako oholztetan erakutsiko dute herritarrak idatzitako antzezlan. Xehetasun asko aurreratu nahi gabe, obraren gainean mintzatu da

riekin bilera egin genuen. Aipatu genien herrian zer gai landu nahi genituen eta elkarrizketatu nahi genituen herritarren profila zehaztu genien. Izan ere, Geuretik Sortuak ekimenean sortzaileok herriari zerbait eskaini behar diogu baina herriak sortzaileoi ere zerbait eskaini behar digu. Saretzeko aukera paregabea eskaintzen duen

"KONTATU NAHI GENUEN GUZTIA GORPUZTEKO PROPIO PENTSATUAK DAUDE PERTSONAIAK"

proiektua da: herritik eta herriarentzat sortutakoa.

Beraz, zuek zer eskaini zenioten Plentziari? Eta herriak zuei?

Egonaldian tailerrak eta solasaldiak egin genituen herritarrekin. Askotariko profiletako jendearekin aurrera eraman genituen saio horiek, lanketa kulturartekotasunetik egin nahi genuelako. Belaunaldi desberdinetako jendea zegoen, askotariko bizipenak izandakoak eta hainbat kolektiboetakoak. Luxua izan zen hori guztia; guk landu nahi genituen gaiak buruz hausnartzeko aukera paregabea izan zen. Guk euskal identitatez pluralean hitz egiten dugu, euskal identitatea azken finean anitza izan daite-

keelako, eta zapalkuntzak ere askotarikoak. Garbi genuen, zapalkuntzak salatu gabe, ezin geniola kulturartekotasun begiradari heldu. Oso aberasgarriak izan ziren saio haiek; grabatu egin genituen herritarren testigantzak eta antzerkia gorpuzteko baliagarriak izan dira horiek guztiak. Benetan esanguratsua egin zitzaidan, adibidez, lodifo-

"ANTZEZLANEAN EMAKUME BEZALA ZEHARKATZEN GAITUZTEN GAIK LANTZEN DITUGU"

biak zenbateraino zeharkatzen gaituen. Tailerretan partaideei galdetu genien ea sekula lodi sentiarazi izan dituzten. Denek baietz erantzun zuten, den-denek. Horrekin ohartu gara zenbateraino garen lodifoboak eta zenbateraino jasaten dugun hori gure gorputzetan.

Aipatzen dituzun lekukotza horiek dira oholtzak gaineko antzezlanak hasi aurretik ikus-entzuleek bozgorailuetatik entzun ditzaketenak? Hori da, hasieran entzuten direnak, bai. Obran sartu nahi genituen, eta pentsatu genuen prelude gisa, publikoaren arreta hor kokatzeko egokia izan zitekeela. **Eta azkenean, landu nahi zenituzten gaiak ardatz hartuta, distopia bat oholtzaratu duzue.**

Hasieran, ur handitan sartu izanaren sentsazioa izan genuen, eta horregatik, azkenean erabaki genuen distopia bat sortzea zapalkuntzen gaiak helduta, identitateaz ezin baitugu hitz egin zapalkuntzez mintzatu gabe. Gure helburua bistarazten ditugun zapalkuntza horiez hausnarraraztea da, umoretik baina pentsaraztea. Badaude barre egiteko momentuak, baita gogoetarako une potenteak ere.

Zeri buruz hausnartzea nahi duzue?

Bada, egunero-egunero bizitzen ditugun askotariko zapalkuntzez: lodifobiaz, arrazakeriaz, heteropatriarkatuaz, hizkuntzaren zapalkuntzaz ... Botere harremanez, finean.

Lana kulturartekotasunaren begiradatik ontzea ezinbestekoa izan da zuretzat.

Gu emakumeak gara eta zapalkuntzak jasaten ditugu, baina era berean, zuriak gara eta pribilegioak ditugu. Antzezlanean emakume bezala zeharkatzen gaituzten gaiak lantzen ditugu, baina arrazakeria ere salatu nahi izan dugu. Amelia Barquinek esaten du denok garelako heteropatriarkatuaren seme-alabak edo umeak, genero ez bitarrear, baina kolonialismoarenak ere bagarela esango nuke nik. Horri dagokionez, gai hori ere ironiatik landu dugu, baina hausnartzeko bide ematen du; zenbateraino garen arrazistak jabetzeko balio du.

Hasi eta buka, zenbat denborako prozesua izan da 'Frankopoleon' sortzearena?

Urtebete eskasekoa.

Eta antzerki obra bat sortzeak bere gain dakartzan lan guztien artean, zein izan da mardulena?



"GIDOIA IDAZTEAREN ZEREGINA NIK EGIN DUT, ETA HORI IZAN DA PROZESU LUZEENA ETA ZAILENA"


Gidoia idaztearen zeregina nik egin dut, eta hori izan da prozesu luzeena eta zailena. Hasi eta buka, antzezlan bat hutsetik sortu behar izan dugu. Sekulako lana izan da, baina merezi izan du. Sormen prozesu guztia gure gain hartzeak, prozesuaren amaierara heldu arte, aktore lanetan ezin zentratu izana ekarri digu. Dena den, dudarik gabe, esperientzia biribila izan da.

Aipatu diguzu euskal identitateek jasaten dituzten zapalkuntza bat baino gehiago bistarazi nahi izan dituzuela antzezlanaren bitartez. Izenburua ere nahiko esanguratsua da zentzu horretan.

Pentsa, Franko eta Napoleon, Espainia eta Frantzia, espainola eta frantsesa, egunero euskara zapaltzen duten bi hizkuntza nagusiak. Antzezlanaren une batzuetan entzun daitezke bi hizkuntza horiek, antzezlan hasi orduko, esaterako. Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan lan bat horrela hastea...

Euskara aipatu duzu. Eszenatokia darabilzuen euskara zaintzeari ere eman diozu berebiziko garrantzia.

Bai. Euskaraz bizi gara, euskaldunak gara eta guk oso argi genuen euskaldun izatea zer den: guretzat oso argi dago zerk egiten gaituen euskaldun. Baina ikus-entzuleek hortaz ere gogoeta egitea ere nahi genuen. Egañak [Andoni, bertsolaria] esaten du euskara bildua erabili behar dela elkar uler dezagun. Bada, Euskal Herri osora iritsi nahi badugu, erabili behar dugun euskarak batua edo bildua behintzat izan behar du. Hori horrela, obra batuan idatzita dago ia oso-osorik, eszena bat izan ezik: amonarena. Horretan, nik nire amonari aitortza egin nahi nion eta berak erabiltzen zituen hitzak-eta sartu ditut. Egiari zor, beste hausnarketa bat ere egin dugu euskara batuari dagokionez: orokorrean, oso *hegozentrizat* gara. *Hegozentrizat* h-rekin, hau da, hegoalde-zentrizat. Protagonista erdialdeko batuan ari da, erdialdeko euskalkiko lexikoarekin. Antagonistak, ordea, batua darabilen arren, mendebaldeko goi nafarrera eta lapurteraren



Antzezlan hutsetik sortzearen esperientzia "biribila" izan da Gomezentzat. EGOITZ ZELAIA

lexikotik edaten du. Horrekin Egoitz Zelaia hendaia irakurdu digu. Nik beti egin izan dut euskalkien erabileraren aldeko defentsa.

Euskaraz aritzeko zenbait manera entzun daitezke.

Testuak hori dena erakusten du. Euskara, aditzari dagokionez, hain aberatsa denez, tratamendu desberdinak baliatu ditugu pertsonaien arteko botere harremanak islatzeko. Esate baterako, berorika tratamendua erabili ohi dute boterean daudenei hitz egiteko. Zuka ere erabiltzen dute, baita hika ere. Tokaren [gizonezkoek elkarri hika egiteko dagokien era] eta nokaren [emakumezkoek elkarri hika egiteko dagokien forma] erabilerak, gainera, ezberdindu ditugu. Toka erabiltzen duten pertsonaiak [Josu Jon Illunbe eta Aberastegi] arrazistak, kapitalistak eta falokratak diren

Euskal Oligarkiako bi matxirulo nazkagarri dira. Euskaldunak dira, baina zapaltzaileak. Parodia denez, umorea darabilgu. Noka egiten dutenen artean, berriz, beste harreman bat suma daiteke. Protagonistak [Ana] eta antagonista [Noelle] elkarri hitz egiteko erabiltzen dute; istorio eta erlazio berezia daukate. Niretzat noka ere berezia da. Egiten dudana pertsonekin harreman bereziki polita dut.

Oholtza gainean pertsonaia asko, eta askotariko ezaugarrietakoak.

Bai, kontatu nahi genuen guztia gorpuzteko propio pentsatuak. Pertsonaiak sortzerakoan ahalik eta xehetasun gehienak lotu nahi izan ditugu: pertsonaien izen-abizenak (edo haien falta), agertzen duten jarrera, darabilten hizkera, jantzita daramatzaten arropak eta horien kolo-reak, e.a.

Antzerkiak aurrera egin ahala, bat-batean irrati esatari ezagun batzuen ahotsa entzungo du publikoak. Lasarteoriatarrei aski ezaguna egingo zaie ziurrenik horien artean bereziki bat.

Noski, Maider Seguirolarena. Laguntza eskatu nion lehen unetik baiezkoa eman zidan; gidoia idazten ari nintzela izan zen. Lan ederra egin du.

Ez da, ordea, 'Frankopoleon'-en kolaboratu duen herritar bakarra izan.

Ez. Mikel Sanchez herritarra ere sekulako laguntza eman dit. Biok musika talde berean jotakoak gara, lagun mina da eta orain BAMMS-eko musikaria da bera. Orain dela urte asko talde bereko kide izan ginen, Lasarte-Oriako taldea zen: Lili and The Tomboys. Gitarra jotzailea zen bera, eta, beno, kristoren laguntasuna egin genuen. Berari ere proposamena egin nionean segituan eman zidan baiezkoa. Izugarri lagundu dit, egia esan. Obra sentsoriala egin nahi izan dugu, atrezzo aldetik minimalista, baina argiak eta soinuak garrantzia eduki zezaten nahi genuen. Soinua eta musikari dagokionez, Mikelek sekulako lana egin du. Doakiola, beraz, berari ere merezitako aitortza hemendik.

Eta behin bi ezkerro, hirugarrena ere seguru. Halako batean, beste ezusteko bat oholta gainean: Gartxot eta Aroa Lasa Letona. Azken hori ere lasarteoriatarra.

Bai, eta lagun mina. Berak ko-reografia prestatu du. Gainera, Usurbilgo emanaldian zuzenean jo zuten eta hemendik aurrera-koetan ere, ahal dutenetan, gurekin izango dira. Gartxot orain ari da bere disko berria (*Bizirik gaude*) aurkezten, eta beraz, ezin izango du askotan azaldu.

Bi artista horien agerraldiaz ere ez dugu datu askorik aurreratuko, baina zer nolako momentua Euskal Kantugintza Tradizionaleko abesti bat espainolez abesten duteneko. Ikaragarria da, ikaragarria. Horrekin ere jendeak hausnartzea nahi dugu: nora ote goazen, denak balio ote duen. Gaur egun zenbaitzuk uste dute erderaz eginda, eta tartean bi hitz euskaraz sartuaz, euskaraz ari direla. Beren agerraldiak horri buruz ere hausnartzeko balio izatea nahi dugu.

Areto batean egin duzuen lehen emanaldia Usurbilgoa izan da [hilarren 1ean]. Nola joan zen?

"BADAUDE BARRE EGITEKO MOMENTUAK, BAITA GOGOETARAKO UNE POTENTEAK ERE"

Plentzian egin genuen estreinaldia eta oso berezia izan zen. Tailerretan eta solasaldietan parte hartu zutenak bertan egon ziren. Kristoren *feedback*-a eman ziguten. Egonaldietan zehar lagunak egin genituen, adibidez, jatetxe berean jaten genuen beti eta jendaurreko lehen emanaldi hartara joan ziren jatetxeko langileak-eta. Hunkigarria izan zen. Erdi malkotan. Oso-osoa polita izan zen Plentziakoa. Herri horrek, ordea, ez dauka areto-aretorik. Kultur jarduerak aurrera eramateko kultur-etxea erabiltzen dute, baina oso txikia da eta ez da egokia antzerkirako; gauzak horrela, gaztetxean egin genuen estreinako emanaldi hura.

Bertakoek harrera bikaina egin ziguten. Hasieratik ateak ireki zizkiguten, eta azkenean, zerbait txukuna egin genuen. Ikaztegitan egin genuen bigarren emanaldia, eta bertakoek ere esku-zabal hartu gintuzten. Dena den, Usurbil izan da areto- aretoko gure estreinaldia, baldintza onekin, hots, gure obrak eskatzen duen soinuarekin, argiztapenarekin... eta zoragarria izan da. Etxean nengoen; horrekin dena esana dago.

Emanaldiak

Otsaila

- 22 Etxarri-Aranatz.
- 27 Astigarraga.

Martxoa

- 6 Atharratze.
- 14 Araitz
- 15 Ziortza-Bolibar

Maiatza

- 23 Amoroto.

Azaroa

- 8 Oiarzun.

*Emanaldi horiek Geuretik Sortuak egitasmoak lotutakoak dira. Horiez gain izango dira gehiago.



Ondorengotza egitasmoaren berri eman duten eragileen atzealdeko Antonio Mercero aretoan egingo dituzte sentsibilizazio saioak. TXINTXARRI

Txintxarri

Eskualdeko negozioen jabeen adina ikertu du berriki Beterri-Buruntza Mankomunitateak. Gure herrian, 300 dendari txiki baino gehiagorengana jo dute eta egiaztatu dute hurrengo hamar urteetan gutxienez 40 saltoki egon daitezkeela ixteko arriskuan, erreleborik ez bada. Ariketa horrek agerian utzi du dendari ugari erretiroari aurre egin beharko diotela eta ezbaian egon daitezkeela jardue- ra ekonomiko horien jarraitasuna zein enplegua sortzea.

Horren aurrean, negozioen ondorengotza bideratzeko Merkataritza Txikiaren Belaunaldi Aldaketa Programa aurkeztu dute berriki udaletxean: Beterri-Buruntza Mankomunitateak prestatu eta gidatutako ekimenarekin bat egin dute Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak. Hiruetako ordezkariak euren arteko "elkarlana" balioan jarri eta irudikatu dute prentsaurrekoan.

Udaleko Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandezek hartu du hitza eta azaldu du programaren helburua dela herriko establezimenduetako jabeak "trantsizio ordenatu baterako" prestatzea, euren negozioen jarraitutasuna ziurtatzea udalerriko sare ekonomikoa iraunkortuko duelakoan. "Beti esaten dut gauza bera eta errepikatuko dut: komertzio txikiek Lasarte-Oriari sekulako ekarpena

Ixtear egon daitezkeen komertzioak irekitzen jarraituko duen giltza

Hamar urtetan erretiratzeko adinean egongo diren edo gertu izango duten merkatariei doako formakuntza eta aholkularitza pertsonalizatua emango diete, euren negozioen ondorengotza planifikatzeko eta gauzatzeko baliabideak eskura ditzaten

egiten diote eta lekuko aldaketen alorrean ere lagundu egin nahi diegu".

Erronka "garrantzitsua"

Beterri-Buruntza Mankomunitateko lehendakari Patxi Ibar-gurennek nabarmendu du erronka "garrantzitsu eta polita" dutela esku artean: "Belaunaldi aldaketa, ixteko arriskua duten establezimenduak zabalik mantentzea... Estrategia oso inportantea da ondorengotzarena, egindako ikerketatik eskuratu ditugun datuak kontuan izateko modukoak direlako".

ERRELEBO FALTAGATIK GUTXIENEZ 40 SALTOKI ITXI DITZAKETE HERRIAN, HAMAR URTETAN

Horrekin batera, jakinarazi du joan den azaroan jarri zutela martxan Usurbilen eta Urnietan; orain, Lasarte-Orian aktibatu dute. "Ez dugu nahi aurtengo kontua izatea soilik, baizik eta datozen urteetan ere garatzen jarraitzea". Fernandezek antzera, saltokiaren ekarpena goretsi du Ibar-gurennek: "Herria egiten dute eta komunitatea aberasten dute".

Programa irudikatzeko, giltza

Aipatu proiektu horren berri emateko prestatu dituzten baliabide grafikoak erakutsi dituzte. Eskurrietako bati giltzaren forma eman diote, egitasmoaren esanahia irudikatzeko: "Jubilatze- ar dagoen dendariak atea ixteko egingo duen keinu berbera gauzatuko du erreleboa hartu eta jardue- ra ekonomiko horren ondorengotza bermatuko duen pertsonak", azaldu du Beterri-Bu-

runtza Mankomunitateko Enpresa teknikari Marisa Truebak.

Prozesu horretan dendarien "bidelagun" izan nahi dutenez, hiru sentsibilizazio saio prestatu dituzte datozen hamar urteetan erretiratzeko adinean egongo diren merkatariei lasarte-riarrentzat. Hilaren 18an, 23an eta martxoaren 2an aurre- ra eramango dituzte, Antonio Mercero aretoan, 14:00etatik 16:00etara. "Gogoeta eta planifikazio prozesuan lagundu nahi diegu, euren negozioen jabetzetan erreleboa hartu eta irekita jarrai dezaten, gaur egungo

ANTOLATZAILEEK NAHI DUTE PROGRAMA HONEK JARRAIKORTASUNA IZATEA URTEZ URTE

Hilaren 18an ekingo diote prestatzeari

Hamar urteren buruan erretiratzeko adina izango duten dendari- e- zuzendutako hiru saio prestatu dituzte. Antonio Mercero aretoan egingo dituzte, 14:00etatik 16:00etara. Antolatzaileen esanetan "prestakuntza praktikoa eta aholkularitza pertsonalizatua" uztartu dituzte, bi zutabe nagusitan egituratuta. Horietako bat osatzen dute prestakuntza saio hauek:

Hilak 18, asteazkena

- Ondorengotza programaren aurkezpena.

Hilak 23, astelehena

- Erretiroari buruz jakin beharrekoak.

Martxoak 2, astelehena

- Negozioaren erreleboa planifikatzen.

Horien ostean, ondorengotza programarekin segi nahi duten dendari- e- tutoretza eta aholkularitza indibidualizatua egingo dute Beterri-Buruntza Mankomunitateko kideekin.

IZENA EMATEKO:



titularrek beraien etapa profesionala bukatu ostean ere". Informazio gehiago duzue eskura eskuineko arrosa koloreko zatiduran.

Aterpea merkatarien elkarte- ko lehendakari Mabel Pedreirak, azkenik, programa hori "oso interesgarria" iruditzen zaiola azpimarratu du eta bazkide di- ren dendari guztiak animatuko dituela sentsibilizazio saioetan parte hartzera.



Osasunarena bolo-bolo dabilen gaia izanik, solasaldiak herritar ugariren jakin-mina piztu zuen. LASARTE-ORIAKO EH BILDU

Udaletatik egin daitekeenaz solastu dira

Osasun politikak eta zaintza izan dituzte hizpide EH Bildu alderdiko zenbait ordezkari Antonio Mercero aretoan. Sistema publikoaren egoera, komunitate ikuspegiaren garrantzia eta hori gauzatzeko adibide praktikoak partekatu dituzte bertaratutakoekin

Txintxarri

Gaur egungo gizartean puri-purian dagoen gaietako bat da osasunarena. Herritarren kezka partekatzen dute EH Bildu alderdiko kideek eta udaletatik esparru horretan egin daitezkeenaz solastu ziren zenbait ordezkari Antonio Mercero aretoan, hilaren 5ean: alderdi horretako legebiltzarkide Rebeka Ubera; familia eta komunitateko mediku nahiz Andoaingo zinegotzi Larraitz Arriola; eta heziketa fisikoko lizentziatu eta Hernaniko jarduera fisiko zein kirol teknikari Esti Aldeiturriaga. Lasarte-Oriako udal taldeko kide Oihan Agirretxek moderatu zuen hitzaldia.

Ekimena antolatu izana kontestuan jarri zuen Agirretxek. Besteak beste, gogora ekarri zituen horren aurrean LOOPA Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataformako kideek azken urteetan egindako mobilizazio ugariak. "Esate baterako, osasun zentroan mediku bakarraz izatera iritsi ginen".

Uberak esplikatu zuen nola dagoen osasun sistema publikoa: "Gaixotasunean ardaztuta dago nagusiki, baina sistema publikoa oso zabala da eta erpin asko ditu". Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak egin daitekeenaz harago, udalek konpetentziak badituztela adierazi zuen, baina askotan ez dutela jakiten horiekin zer egin. "Eta badugu zeregina, hori ez da kontua". Ajuria-Enearen jardunari zuzendu eta azken urteetako "jarrera aldatetari" erreparatu zion: "Osasun mahaia jarri dute martxan. Edonola ere, elkartasun falta egon da eta benetako neurri eraginkorrik ez dute hartu".

Arriolari berebizikoa iruditzen zaio "osasuna eraikitzea". Hori

ESTI ALDEITURRIAGA:
"HERRI BAT
AKTIBOA DENEAN,
OSASUNTSUAGOA
ERE BADA"

azaltzeko abiapuntutzat hartu du bere ogibidean gertatzen dena: "Komunitate ikuspegia alde batera uzten da askotan, errazena diagnostikoa egin eta tratamendua ematea baita, gaixotasunari soilik begiratuta". Gehitu zuen pertsonen osasunaren % 90ak ez duela zerikusirik Osakidetzarekin: portzentaje hori osatzen dute inguruneak, egoera sozioekonomikoak, eguneroko ohiturek...

Azkenik, modu praktikoak aletu zituen Aldeiturriagak: batetik, zerbitzuen katalogoa osatzea, eta bestetik, aktibazio komunitarioa. Biak "paraleloki" jorratu behar dira herrietan: "Jarduera fisikoak eta kirolak daukaten altxorretako bat da komunitatea egiteko gaitasuna: herri bat aktiboa denean, osasuntsuagoa ere bada". Hiru adibide zehatz eman zituen: Hernaniko Jarduera fisiko eta kirol orientazio zerbitzua; udalerri horretako Burujabe ekimenaren baitan zaintzaileak zaintzeko proiektua; eta Eskola Kirola.



Elizatze plazan manifestatu ziren dozenaka herritar. TXINTXARRI

Desokupazio enpresek ez dute harrera onik izango herrian

Lasarte-Oriako Ernaiko kideen ustez, horrelako eragileak agertzea "faxismoaren gorakadaren ondorioa" da

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Udaletxe zaharraren parean ipinita, hainbat herritar bildu ziren hilaren 6ko manifestaziora. *Desokupa faxistak Lasartetik kanpora* leloa irakur zitekeen pankartan. "Ez Lasarten, ez inon" eta "Alde hemendik, utzi bakean" ere oihukatu zuten.

Duela hamarkada bat sortu zuten Desokupa, Espainian, eta duela gutxira arte telebistaren eta sare sozialen bidez ailegatu da Euskal Herrira haren inguruko berririk. Dena den, jakinarazi dute "errealitatea" ere bihurtzen ari dela gure herrian, bertako zenbait ordezkari izan direlako berriki herrian.

Lasarte-Orian azkenaldian gertatutakoari erreparatuta, zehaztu zuten "seme-alabak jatorri atzeritarreko emakume bat" kalera-tzeko mehatxuak zabaldu dituela enpresa horrek. Inolako testuingururik gabe egin dutela, hots, kaleratzea sahiesteko eman daitezkeen irtenbideak zehaztu gabe. Hori dela-eta, euren arabera, argi utzi zuten beraien asmoa: "Familia zaurgarrien edota jatorri atzeritarreko pertsonen aurkako eraso zuzena planteatzea, kasu honetan, etxebizitzaren arazoa baliatuz".

Aintzat hartu zuten desokupazio enpresa horien agerpena ez dutela "testuinguru isolatuan" ulertzen; Ernaiko kideen ustez, "faxismoaren gorakadaren ondorio" dira. Mezu erreakzionarioekin eta LGTBIQ+ fobikoekin batera, nazio zapalduetako gorrotoa eraiki da, estatuan, eta

horrekin batera, okupazioaren aurkako "kanpaina politikoa eta mediatikoa" abian jarri dute eskuineko hainbat sektorek. Era berean, aipatu zuten horrelako mugimendu faxistek "alderdi instituzional batzuen eta gorputz polizialen babesari" izan ohi dutela.

Ez kontratatze deia

Agerpenak agerpen, mezu hau zabaldu zuten herrian Lasarte-Oriako kideek; ez erortzea haien diskurtso sinplistetan eta, batez ere, ez kontratatzea halako enpresarik, ez baitituzte "herri-tar langilearen printzipioak" defendatzen. Adierazi zuten, gainera, "elite ekonomikoaren eta espekulatzailearen mesedetan" jarduten direla, maiz, gainera, "euren finantziazioarekin".

Amaitzeko, azken boladan, faxisten presentzia udalerrian areagotu egin den arren, defendatu zuten faxistak ez direla ongiotzariak, ez Lasarte-Orian, ez Euskal Herrian, ezta munduko beste txokoetan ere. Hori horrela izanik, deia luzatu zieten edozein tokitako gazteei, gogoratzeko "borroka antifaxista intersektionala" dela eta "denon ardura" dela edonolako adierazpen faxistei aurre egitea.

HORRELAKO ENPRESAK
"ELITE EKONOMIKO ETA
ESPEKULATZAILEAREN
MESEDETAN" ARITZEN
DIRELA ADIERAZI DUTE

Opera digitalera erakarri nahi dituzte herrikideak

Ekainera bitarteko opera emanaldi digitalak iragarri dituzte. Lasarteoriarrak proiektzio horietara joan daitezen gonbidatu dituzte

Txintxarri

Lasarteoriatarrek "kalitate handiko" bertsio digitaleko opera emanaldiez gozatzeko duten "aukera ezin hobea" azpimarratu du Jesus Mari Egizabal Danok Kide elkarte ordezkariek. Ikasturte amaierara arteko emanakizunak ezagutarazi aurretik, balioan jarri ditu herrian aurrera eramaten dituzten proiektzioak.

Gogorarazi du hilean behin izan ohi direla saioak, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. 19:00etan hasi, eta gutxi gorabehera bi ordu edo bi ordu eta erdiko iraupena izaten dutela. Bertaratze sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, edota sarean, Kutxabank-eko web atarian. 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Urte luzetako kolaborazioa

Egizabalek hogeitau urte baino gehiago daramatza udalarekin elkarlanean opera sustatzeko ekimenak aurrera eramaten. Pena ematen dio, ordea, proposatzen dituzten emanaldietara herritar gehiago ez joateak. Azaldu du kalean entzuten duela opera gustuko duela adierazten duen jendea, baina, adierazpen horiek ez datozela bat hitzordueta-joaten den ikus-entzule kopuruarekin. Egun 50 bat kideko ikus-entzule talde egonkorra biltzen da emanaldietan, baina kopuru hori handiago izatea nahi luke berak.

Gauzak horrela, publikoak erakartzeko balioan jarri ditu kultur etxeko emanaldiak. Adierazi du aretoko pantaila handiak eta soinu proiektatzeko



Udaletxean egin dute programazioaren aurkezpena. TXINTXARRI

aparailuek operaren bertsio digitalak kalitate handiarekin ikustea ahalbidetzen dutela. Zuzeneko emankizuna ez izanagatik, grabatutako emanaldien proiektzioak gertutik ikustek aukera ematen duela bertan parte hartzen duten interpreteak nola lan egiten duten ikusteko, hots, kantuan nola egiten duten, nola modulatu duten, kantuan aritu ostean arnasa nola erreperatzen duten, eta abar.

Hala, ohartarazi du proiektzioen jatorrizko

hizkuntza ez dela arazo, azpigitulatu egiten baitituzte.

Emanaldiak

Hilak 18

- *La traviata.*

Martxoak 18

- *La Gioconda.*

Apirilak 15

- *Giselle*

Maiatzak 13

- *Lucia di Lammermoor.*

Ekainak 10

- *Turandot.*

'Ibai izena duen herrialde bat' lehiaketa irabazi du June Martin Sanchezek

Oriarte Larrekoetxe institutuko ikasleak 'Ardea, maxima regina aquarium' lana aurkeztu du ekimen horretara

Txintxarri

Oriarte Larrekoetxe institutuan 2. Batxilergoa ikasten ari da herritarra eta *Ardea, maxima regina aquarium* lana aurkeztu zuen Irun, Hondarribia eta Hendaia udal antolatzen duten Mugaz Gaietako Arte Digitaleko txapelketa horretara. 500 euroko saria poltsikoratu du gazteak eta jakinarazi du gi-

tarra elektriko bat erosiko duela diru horrekin.

Beti darama koaderno eskuetan eta "marrazteko ohitura handia" dauka, June berak kontatu digunez. Batez ere "arkatza edo grafitoa" erabiltzen du horretarako. Irudi-soinu eskoletan programa digital bat erabiltzen ikasi du eta teknika hori aplikatu du lehiaketara aurkeztuta-



June, saria eskuetan, lehiaketaren antolatzaileekin. IRUNERO ALDIZKARIA

ko *Ardea, maxima regina aquarium* lanean: "Erronka berriak dira niretzat digitalki marraztea eta ilustrazioetan kolorea erabiltzea".

Ibai izena duen herrialde bat ekimenaren bidez Irun, Hondarribia eta Hendaia

ko "paisaia bereziak eta espazio esanguratsuenak" irudikatzeko erronka dute parte hartzaileek, antolatzaileek zehaztu dutenez. Arte digitaleko teknikak erabili behar dituzte horretarako eta jatorrizko lan bakarra sortu behar dute.



NEURE KABUZ

OIHANE PUERTAS RAMIREZ

Kirola nor den

Aitzakia bat nahi nuen gai hau mahaigaineratzeko, eta duela aste batez hasi ziren Olinpiar Jokoak desen-kusa aproposa dira horretarako. Kirolaz aritu nahi dut gaurkoan, eta Olinpiar Jokoak dira, nire ustez, kirol munduan ikusgarritasun handiena duen ekitaldia. 'Olinpiar Jokoak' esatean, ordea, (ia) gehienoi udakoak etortzen zaizkigu burura, eta orain egiten ari direnei 'neguko' aurrizkia jarri behar izaten diegu, baina udakoei, ez. Horrekin lotuta, paralelismo bat: orokorrean, kirolaz ari garenean, aurrizkirik (edo atzizkirik) gabe izendatzen dugun hori gizonzkoena izaten da. Egongo da dagoeneko hori horrela ez dela pentsatzen duenik, baina spoiler: bada. Hemen adibide bat: hartu sare sozial bat, kirol hegemoniko bat eta talde bat (Instagram, futbola eta Reala, adibidez). Instagramen Real Sociedad bilatuz gero, kontu hori gizonzkoen taldearena dela ikusiko duzu. Real Sociedad Femenino, aldiz, emakumeena –hizkuntzarena beste baterako utziko dugu–. Athleticekin, berdin. Webgune ofizialetan, gainera, 'Lehen taldea' eta 'Emakumeak' erabiltzen da bi taldeak bereizteko. Argi dago zein dagoen bigarren planoan, ezta?

Generoa, kirola eta errepresentazioa elkarri lotuta dauden gaiak dira, eta horri buruz egin nuen 2023an master amaierako lana. Badakigu generoan ardaztutako gizarte batean bizi garela, eta horren aitzakiapean espazioak banatu direla historian zehar, publikoa eta pribatua bereiziz (emakumeak pribatua eta gizonak publikoa). Ezer berririk ez hemen. Bereizketa horrek gizarte-antolakuntza markatzen du, eta harremanak hierarkizatzen. Eta ez, hau ez da beste gai bat, teistuinguru apur bat baino ez da. Kontua da gizartean gertatzen den horixe bera jazozen dela kirolean, egitura berak erreproduzitzen direla. Horiek horrela, asko dira kirola ezagutzea gizarte ezagutzeko giltza dela dioten ikerlariak. Izan ere, kirolaren bitartez erreproduzitzen da maskulinitate eredu hegemonikoa, eta praktika horrek bitartasuna eta gizarte eredu dikotomikoa mantentzen laguntzen du. Hala, historian zehar, kirola gizon eta maskulino kategorietara mugatu da. Egongo da atzoko kontuak direla esango duenik, eta badakit aurrerapausoak egin direla, baina egiturak berdin jarraitzen du.

Kirola eta gizarte etengabeko harremanetan da biltza, eta kazetaritzak berebiziko rola jokatzen du hor. Zergatik? Egunero kontsumitzen ditugulako hedabideak, eta horietan jasotzen duguna barneratu, normalizatu eta erreproduzitzen dugulako. Hedabideen bidez ideia eta balioak normalizatu eta transmititzen ditugulako. Horren adibide da kirol programazioa. Zer dago *prime time*-an? Nor dago titular eta orri nagusietan? Lehiak hartzen du espazioa, eta gizonak dira protagonista.

Aipatutako guztiak gizartean du eragina, eta, ondorioz, kirol eredu bakarra lehiakortasunean oinarritutakoa dela iruditzen zaigu. Hori dela baliozkoa, ona eta inportantea. Ikusgaitz utziz kirolarekin lotutako beste hamaika gai, eta ikusezin eginez kirola bizitzeko beste mila modu; kirola praktikatzan duten beste hainbeste gorpuz.

Turistifikatutako hiri baten kronikariak

Globala den fenomeno horrek Donostian, metropolian eta mundu osoan eragin dezakeenari buruzko borobila egin dute Oriarte Landaberri institutuan. BiziLagunEkin eragileko kide Amaia Oulad eta Maider Uralde gonbidatu dituzte oraingo honetan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euren hirian, Donostian, bizitza proiektua egin nahi duten baina ezin duten BiziLagunEkin herritar plataformako ordezkariak dira Amaia Oulad eta Maider Uralde. Tamalez, egoera hori gero eta ezagunagoa zaie gero eta pertsona gehiagori, ez bakarrik han, baita metropolietako udalerrietan (Lasarte-Orian, besteak beste) nahiz mundu osoan, fenomeno globala baita turistifikazioa. Kontzeptu hori honela definitu dute BiziLagunEkin eragileko kideek: "Eredu sozial, kultural eta urbanistikoak turismoaren sektoreko negozioen mesedetan aldatzeko prozesua". Horretan ari dira buru-belarri eta eztabaida "irekia, gardena eta zintzoa" eratu nahi dute gizartean. Ariketa hori bera gauzatu zuten hilaren 10ean Oriarte Landaberri institutuan, ongi burutu ere, bertaratu zirenek luze eta zabal hitz egin zutelako, nola ez, borobilean.

Hitzaldiak, mobilizazioak eta bestelako ekimenak egiten dituzte plataformako kideek kontzientzia sortu eta herritarrek aktibatzeke. Aurten, esaterako, *Hau ez da cheesecake bat* fanzinea publikatu dute, "gure hiriak [Donostiak] sufritzen duen turistifikazioari buruzko kritika umoretsua". Arazo horrek "barregura eta negargura" eragiten die aldi berean, baina baita "antolatzeke, irauteke eta alternatibak pentsatzeko gogoia" ere. Ale batzuk banatu zituzten atzoko saioan eta edukiak patxadaz eta arretaz irakurtzera gonbidatu zituzten: azalpen testuak, komikiak, denborapasak... prestatu dituzte.

Lasarte-Oria, turistifikatuta?

BiziLagunEkin plataformako kideak jakitun dira turistifikazioak ez diola Donostiari soilik eragiten eta metropolietako herritarra ere hedatzen ari dela. Datu interesgarri batzuk eraku-

tsi zituzten, eurak soilik ez, saiora joandakoak ere harritu zituztenak. INE estatistika zentroan saltseatzera gonbidatu zituzten bertaratutakoak.

Solasaldi irekiarekin amaitu zuten atzoko saioa eta Lasarte-Oria turistifikatuta dagoen ala ez hausnartzeko gai ugari jorratu zituzten: bizilagunak kanpora joan behar izaten ari diren ala ez; komunitateen arteko loturak eta herri bizitza ahuldu ote diren; merkataritza aldatu den; bizilagunen beharrak asetzekoan utzikeria eta inbertsio falta nabaritzen ote dituzten, eta abar. Horrez gain, perspektiba aldatu eta turistak gu geu garenean egiten dugunaz eta kontsumitzen dugunaz go-goetatu zuten: "Beste eredu bat sortu bitartean gure kontraesaneekin bizi behar dugu. Utopikoa ez da aldatzea, gaur egun bezala jarraitzea baizik".

Bestalde, Borobilean Elkarteko kideak jakinarazi dute hil hone-



Amaia Oulad eta Maider Uralde, azalpenak ematen. TXINTXARRI



Lasarte-Orian legezkoak diren pisu turistikoei buruzko datuekin egin dugu grafiko hau. INE estatistika zentroak iazko martxoan bildutako datuen arabera 25 bizitoki daude, turistentzako 107 leku dituztenak. TXINTXARRI/FLOURISH APLIKAZIOA

tan beste saio bat egingo dutela: 25ean adimen artifiziala jorratuko dute informatikaria eta datu segurtasunean aditua den Beñat Iriondo lasarteoriatarrekin.

2023ko urrian abiatu zuten egitasmoa zenbait herritarrek,

herritarren ahotan bolo-bolo dabiltzan gaiak elkarrekin eta borobilean jorratzeko helburuarekin. Makina bat hitzaldi interesgarri eta aberasgarri egin dituzte ordutik. Are gehiago antolatzen ari dira.



TXINTXARRI

Aisialdi "eskaintza urriaren" aurka, artzikirola

Lasarte-Oriako aisialdiko eskaintza urria dela argudiatuta, artzikirol txapelketa antolatuta zuen LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak hilaren 7an, Okendo plazan. Seiko bi taldetan banatuta, giro ederrean gauzatu zuten eskuz zein oinez aritzea biltzen duen

jokoa. Plazan ziren herritarrek ere gogotik gozatu zuten, ikusle lanetan murgildu zirelarik.

Datozen aste eta hilabeetan ekimen gehiago egingo dituzte. Norabide horretan, iragarri dute apirilaren 25ean izango dela gazte eguna, larunbatarekin.

LABURREAN

Iraganera bidaiatu dute, txapela buruan



Donosti 1987. Un asunto de txapelas antzezlanaren eman zuen Cid CFA konpainiak kultur etxean, hilaren 7an. Iraganera bidaiatu lantzen du obrak Gorka Aginagalde eta Txemi Parra aktoreen eskutik. Garai bateko giroa hain desberdina ez delarik, Errealak Atletico Madrilaren aurka Kopako finala jokatu zueneko testuinguruan kokatzen da istorioa.

Palestinako eta Ekialde Hurbileko urtebeteko kronika

Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek *Palestina eta Ekialde Hurbila sutan (2023-2024)* wikiliburua aurkeztuko du hilaren 18an, Antonio Mercero aretoan, 19:00etan. Gatazka "hotz, teknifikatu eta deshumanizatu" baten harira Euskal Wikipedian argitaratutako 25 artikulua bildu ditu (sei ataletan sailkatuta), Iñaki Alegriarekin batera sustatu duen egitasmoan.

Hori horrela, artikulua sakabanatu horiek guztiak kontzeptu bakar baten bueltan jaso dituzte eta gertaeren albiste sorta bati buruz inoiz publikatutako aurreneko wikiliburua ondu dute. Digitalki zein fisiko ki argitaratu dute.

Maitasun askorekin egindako poesia

'Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak' dokumentalaren emanaldia egin dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Ikus-entzunezko horretan jorratu dituzten gaiak erakarrita lepo bete dute aretoa lasarteoriatarrek; hitza hartzera animatu dira horietako batzuk

Iñigo Gonzalez Sarobe

Giza esperientzia sakon eta mingarrietako bati buruzko dokumentala ekarri zuten herrira hilaren 5ean: seme-alabaren bat edo gehiago galdu dituzten dolua jorratzen duen *Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak*. Ikus-entzunezko horren emanaldia osatu zuten bi hitzartzeak horrela antolatu zituzten: hasi aurretik, udalaren izenean, Agustin Valdivia alkateak eta Kultura zinegotzi Aina- ra Elicecheak hitz egin zuten. Ostean, berriz, protagonistetako hiru solastu ziren kultur etxeko auditorioa lepo bete zuten ikus-entzuleekin: Anakotz Lasarte (le- kukotza eman duen aitetako bat



Ezker-eskuin: Anakotz Lasarte, Izaskun Andonegi eta Nerea Marin. TXINTXARRI

eta proiektuaren sortzailea), Izaskun Andonegi psikologoa eta Nerea Marin erizaina.

Valdiviak eta Elicecheak tes- tuinguruan jarri zuten lanaren muina: "Askotan, amaren minaz gehiago hitz egiten da, baina ai- taren oinazea ere sufrimendu sakonaren isla da eta aitortua izatea merezi du". Adierazi zuten ikus-entzunezko horrek ez duela "erantzun errazik" eman nahi "entzutera, laguntzera eta guraso bakoitzak bere dolua modu ba- karrean bizitzen duela ulertzera gonbidatzen gaitu". Lau aitaren (Anakotz Lasarte, Fernando Alon- so, Igor Aldazabal eta Mikel Perez) "benetako testigantzen" bidez "maitasunaren, absentziaren, erruaren, amorraren, isiltasu- naren eta berreraikuntzaren nahiz itxaropenaren istorioak" ezagutu zituzten ikus-entzuleek.

Bi helburu "garrantzitsu"

Kultur etxera joandakoak ukitu eta hunkitu zituen emanaldiaren ostean igo ziren arestian aipa- tutako hiru protagonistak ohol- tza gainera, txalo artean.

Lasartek hartu zuen hitza eta azaldu zuen bi helburu "garran-

tzitsu" dituela dokumentalak: "Batetik, aita garenon dolurako eskubidea plazaratzea eta erakus- tea sentimenduek eta generoek ez dutela generorik; bestetik, dolu prozesuen bueltan dauden per- tsona guztiei esperantzarako mezua ematea, adieraztea posible dela aurrera jarraitzea".

Doluan laguntzeko espeziali- zatuta dagoen Bidegin elkarteko kide Izaskun Andonegik honela definitu zuen *Aitatxo*: "Maitasun askorekin egindako poesia dela iruditzen zait, prozesua horren bidez igarotzea eta lantzea". Hori jorratzeko espazio garrantzi- tsuena "komunitatea" dela gehi- tu zuen adituak.

Azkenik, emanaldiaren egu- nean bizitako anekdota baten bidez esplikatu zuen Nerea Ma- rin erizainak lan egin bitartean nabaritu duen bilakaera: "Ospi- talean barrena nindoala gizon bat etorri da nigana: 'Nerea' esan, besarkatu eta negarrez hasi da. Duela urtebete dolu prozesuari ekin dion aita bat zen. Nire ikuspuntutik asko aldatu dira gauzak, duela hamar urte ez zutelako eskubiderik horrela espresatzeko".



Okendo Zinema Taldeko kide Mikel Yarza, mikrofonoa eskuetan, 'Popel' lanaren egile eta protagonistak elkarrizketatzen. TXINTXARRI

'Popel' lanak eman dio hasiera sortari

Bigarren Mundu Gerrako 2.000 biktimaren errauntsak dira lan horretako protagonistak. Euskal Dokumentalen Zikloa martxan jarri besterik ez dute egin eta gaur (hilak 13) 'Esto no es Hollywood' emango dute, 20:00etatik aurrera, kultur etxeko auditorioan

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Popel hitzak errauntsa esan nahi du txekieraz. Askotarikoak izan daitezke, baita jatorri ugarikoak ere. Oier Plazak zuzendutako dokumentalean, Bigarren Mundu Gerrak utzitako 2.000 biktima baino gehiagoren errauntsak dira protagonista. Frantsesak, espai- nolak, txekiarrak edota euskal- dunak. Azterna horien artean, lau herrialde horietako hamaika istorio kontatu daitezke. Bi bizi- pen pantailaratu ditu: Enric Mo- nerrenak eta Anjel Lekuonarenak.

Luzemetraiaren oinarrian, gu- rutzatutako bi bide daude. Has- teko, Unai Egia irakasleak zehar- katutakoa. *El impostor* eleberria irakurrita, Monerri zer gertatu zitzaion galdetu zion bere burua- ri. Izan ere, naziek kontzentrazio esparruetara deportatu zuten kataluniar errepublikarra. Ja- kin-mina argitzeko, ikertzeari ekin zion Egia. Anton Gandarias aldi berean hasi zuen bere bidea, hots, bere osaba Anjel Lekuona- ren inguruan arakatzeari. Ges- tapok atxilotu zuen bizkaitarra.

Bi bide horiek erakusteko, "or- denatzea" izan da garrantzitsu- na, baita erronkarik "zailena"

ere. Zuzendariaren arabera, euren lana antolatzea izan da, eta zenbait kasutan, ikertzen ere lagundu arren, gidoiari eta ikus-entzunez- koari forma ematen pasa dituzte ordu gehien. Testuaren ildotik, Plazak jakinarazi du "thrillerra- ren" kutsua eman diotela, "lizen- tzia artistikoa" hartuta.

Pragara ailegatu ziren bai Egia eta bai Gandarias, finean, Fran- tisek Suchy eta bere semearen historia harrigarria azaleratu zutelako. Ohartu ziren aita-semeek 2.000 biktima baino gehiagoren errauntsak salbatu zituztela, haien artean, Moner eta Lekuonarenak, euren bizitza arriskuan ipiniz. Dagoeneko bi gizonak hilda dira. Alabaina, euren alarguna eta ama den Evak bizirik jarraitzen du, eta bera ezagutu zuteneko mo- mentua erakutsi dute. Bere aita- ren anaia zenarekin akordatuta, hunkituta aitortu du Gandariasek bere osaba Anjelen gorpuzkinen gainean "lore sorta bat" ipintzeak asko pozten duela. Busturian omenaldia egin zioten eta garai hartan haren bi izeba oraindik bizirik zeuden. Anaiaren istorioak itxiera duina izan zuela ikusteko aukera izan zutela gaineratu du.



Ezker-eskuin: Jesus Mari Egizabal, Lourdes Anza eta David Sanchez, aurtengo zikloaren nondik norakoak lasarteoriarrei aurkezten. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euripean egotetik itsaspean murgiltzera igaro ziren arratsaldeko zazpietarako kultur etxeko auditoriora bertaratu ziren dozenaka herritarrak, hilaren 9an. Batzuk aretora sartzen ari ziren bitartean harreraren ilara egin zuten beste batzuek, gonbidapenak eskuratzeko irrikaz. Denak eseri zirenean, antolatzaile taldeko zenbait kide oholtza gainera igo eta ikusiko zutena aurkeztu zuten, Lasarte-Oriako Udalari zein Danok Kide elkarteari eskerrak ematearekin batera.

Aurtengo leloa *Egia zure begien aurrean* dela gogorarazi zuen Real Sociedad Fundazioko Urpekaritza taldeko kideetako bat den Lourdes Anzak. "Esaldi polit bat baino gehiago da, itsaso azpian gertatzen denari begiratzeko gonbidapena da". Hori esanda, zentzumenak aktibatu eta uretatik iristen diren irudi, soinu eta emozioez gozatzera animatu zituen pareko ikus-entzuleak.

Ondoren, Danok Kide elkarte-ko Jesus Mari Egizabali eman zion hitza eta honek jardueraren hastapenak gogoratu zituen. "2003-2004 ikasturteko esperientzia eskolara gonbidatu genuen Paco Pizarro ahaztezina, Donostiako Nazioarteko Jaialdiaren eta Real Sociedad Fundazioaren barruko Urpekaritza taldearen sortzailea, saio batzuk ematera. Esperientzia bikaina izan zen eta 20-30 bat pertsonak baino, jarduera herritar guztiei ireki-

Itsasoaren azpian dagoena ikusi, entzun eta sentitzen hasi dira

Lasarte-Oriako XVIII. Itsaspeko Zinema Zikloa martxan dago: ireki dute argazki erakusketa, egin dituzte Txikizikloa zein Adinzikloa ekimen bereziak eta proiektatu dituzte Brontzezko saioko lanak. Zilarrezkoa eta Urrezkoa hilaren 16an eta 23an izango dira

tzea erabaki genuen". Hori horrela, udalarekin jarri ziren harremanetan eta zikloa aurrera eramaten hasi ziren. Horretan "aitzindari" izan zen Lasarte-Oria, Cimasub Tour izeneko ibilbidean gaur-gaurkoz parte hartzen ari diren 30 udalerri baino gehiagoren artean lehenengoetarikoa. Aipamen berezia egin zien Urpekaritza taldekoei eta aldamean zuenetako bati, duela hamar urtetik zuzendaria den David Sanchez herritarrari. Akordatu zen baita ere Nano Cordovilla, Jesus Castillo eta Jesus Insaustirekin. "Nire esker ona eta txalo bero bat guztientzat".

Algak eta marrazoak

Mikrofonoa jaso berrian eta hizketan hasi aurretik Egizabal besarkatu zuen Sanchezek, berri zuzendutako hitz ederren-gatik. "Gozamena da ziklo hau

horrela aurkeztea, non eta nire herrian, etxean jokatzeko dudak tokian". Aurtengo edizioaren xehetasun gehiago eman aurretik aitortza egin zion iaz hildako Jose Luis Navarro herritarrari; Danok Kide elkarte-ko kidea izan zen urte luzez eta zikloa herrira ekartzen hasi zirenetik ez zuen aldi bakar batean ere hutsik egin.

Astelehenetako emanaldiez gain, Lehen Hezkuntzako ikasleekin egindako Txikizikloa eta Atsotakako egoitzan burututako Adinzikloa nabarmendu zituen. "Den-denei itsaspea ezagutu eta itsasoa sentitzeko aukera eman nahi diegu". Hori esanda, zehatu zuen aurtengo jaialdia "oso informatiboa" dela eta saioetara bertaratzeko direnek gaur egun uretan gertatzen ari diren gauza askoren berri izango dutela, esate baterako, *Rugulopteryx*

Okamurae izeneko alga inbadi-tzailea eragiten ari den arazoez. "Gogora ezazue ongi izen hau, Espainiako hondartza ugartara iritsi da jada eta are gehiago hedatuko da datozen urteetan". Hilaren 16ko emanaldian proiektatuko dute horri buruzko ikus-entzunezko bat.

Parean zituenei galdetu zien ea buzeatzailerak diren ala ez, eta, batzuek eskuak altxatu ostean, ea ariketa hori marrazo artean egin ote duten inoiz. Ikus-entzule bakarrak mantendu zuen besoa goratuta. Errepi-katuko ote luke esperientzia hori? Berak, buruarekin, baietz. Atzokoari nahiz datozen asteko emanaldiei buruzko spoiler handiegirik egin gabe, aurreratu zien azken saioan (urrezkoan) marrazoei buruzko lan bat programatu dutela: *Shark Preyed. Comemos carne de tiburón sin*



Argazki panel bat. TXINTXARRI

Erakusketa, udaletxe sarreran

Itsaspeko egiak begien aurrean jartzeko aukera bakarra ez da hilaren 16ko eta 23ko emanaldietara joatea. Lasarte-Oriako Itsaspeko XVIII. Zikloaren antolatzaileek zehaztu dute argazki ikusgarri ugariarekin erakusketa jarri dutela udaletxe sarreran, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, hilaren 27ra arte.



Txikizikloa eta Adinzikloa. CIMASUB

saberlo izena du. Animalia horren garrantzia nabarmentzearekin batera, gizakiongandik pairatzen ari den "etengabeko sarraskia" deitoratu zuen: "Izugarrizko amorrua ematen dit horrek, gure ekosistemarentzako funtsezkoak direlako eta, gainera, ez direlako zientzia-fikziozko filmetan erakutsi diguten animalia gizakijaleak. Beste izakiren batekin nahasten bagaituzte koska egingo digute, baina ez gure haragia irentsi nahi dute-lako; ez zaie gustatzen".

Beltzak, hitzordu ezberdinetan gogor

Beltzak RTko harrobiko kideek ligako jardunaldiei eta estatuko zein nazioarteko txapelketetako hitzorduei egin diete aurre azken asteetan. Euren harritxoak jarri dute herriko jokalariek taldean lan egin eta entsegu edo entsegu gauzatzeak lortuz

Txintxarri

Uribealdeari aurre egin zion Euskal Ligako II. mailako Gipuzkoa Sortzen taldeak hilaren 7an Atsobakar kirol gunean.

Nahiz eta aurkaria markagailuan aurreratu, etxekoek ongi jokatzuz eta aurkariaren hutsez baliatuz markagailua alde jarri eta 68-28 nagusitu ziren.

Beltzak RTko kideak dituzten gainerako taldeei dagokionez, Euskal Ligako I. mailako taldeak izan ezik, guztiek garaipena erdietsi zuten (ikus koadroa). Herritarrek, gainera, euren harritxoak jarri zuten: Joanes Arroyok eta Lander Zabalak entseguak egin zituzten eta Erik Perezek bi entsegu gauzatzeko.

Erkidegoen arteko lehia

Bestalde, Espainiako Erkidegoen arteko txapelketako azken jardunaldia lehiatu zen urtarrilaren 31n eta Euskadiko 18 zein 17 urtez azpiko taldeetan hiru herritar izan ziren lehia Gaztela eta Leonen aurka.

Valladoliden (Gaztela eta Leon) Lander Zabala eta Eneko Sanchez gazteek 31-25 galdu zuten; Sanchezek bi entsegu egin zituen.

Aitana Lazcano herritarra kide duen Euskadiko taldeak, aldiz, 15-3 irabazi zuen Bilbon (Bizkaia) jokaturako lehia.

Era horretara, 18 urtez azpiko ordezkariak seigarren postuan



Euskal Ligako Gipuzkoa Sortzen-Uribealdea partidako jokaldi bat. TXINTXARRI

Ohorezko B maila

- La Unica RT 15 - 38 Gipuzkoa Sortzen

Euskal Liga I. Maila

- Uribealdea 13 - 8 Gipuzkoa Sortzen

18 urtez azpikoa

- Hiru herri Ordizia 15 - 22 Zarautz Beltzak Eibar RT

16 urtez azpikoa

- Durango Caf. Dromedario RT 12 - 41 Zarautz Beltzak Eibar RT

amaitu dute lehia eta 17 urtez azpikoak, aldiz, bosgarren.

Europako txapelketa

Castilla y Leon Iberiansekin Europako Superkopa eskuratu ostean, hilaren 7an Espainiako selekzioarekin aritu zen borrokan Alex Saleta herritarra. Eu-

ropako txapelketa hasi dute lehoiek eta Herbeheren aurka Amsterdam-en jokatu zuten lehen jardunaldia; gorri-horiek 33-51 irabazi zuten.

Hurrengo asteetan multzo lehia jokatu dute eta Suitza eta Georgiarekin neurtuko dituzte indarrak.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

GORENGO MAILA

Sto. Tomas Lizeoa - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Berio, Donostia.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

Texas Lasartearra CF - Hernani CD B

Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Lazkao KE B

Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Touring KE B

Larunbata. 17:00. Atsobakar kirol gunean.

Zestoa KB - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 12:00. Iraeta, Zestoa.

KADETE I. MAILA, KOPA

Texas Lasartearra CF - Orioko FT C

Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

INFANTIL MAILA

Eguzki Andatza t. - Eguzki Patricio t.

Ostirala. 20:50. Maialen Chouraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR II. MAILA, A-3

Ostadar SKT - Luberri Marmaru

Larunbata. 14:00. Maialen Chouraut kirol.

EUSKAL LIGA, KADETE MAILA

Dinteco Araba - Ostadar SKT

Igandea. 16:00. Gasteiz, Araba.

K. PARTAIDETZA, A-1

Goierrri Idegrafic - Ostadar SKT

Larunbata. 10:45. Aldiri kirol, Uretxun.

K. PARTAIDETZA, A-5

Ostadar Urdina - Ostadar Beltza

Larunbata. 09:30. Maialen Chouraut kirol.

PILOTA

EMAKUMEZKO BINAKAKO TXAP.

Emakumezko binakako txapelketako lehiak izango dira lehengoz Lasarte-Orian. Partidak honakoak izango dira:

• Iparragirre eta Etxezarreta -

Zabala eta Arruti

• Zabaleta eta Bertiz -

Arrizabalaga eta Bergara

• Ruiz de Infante eta Mendizabal

- Etxegarai eta Capellan

Igandea. 12:00. Michelin pil.

ESKUJ, BINAKA, N. 2. MAILA

Intza - EPLE

Larunbata 11:00 (3. partida). Michelin pil.

G. PALA, BINAKA, N. 2. MAILA

Eibar 1 - Intza

Igandea. 11:00 (1. partida). Eibarren.

G. PALA, BANAKA, 7RA 2. MAILA

Kuku - Intza (Artetxe)

Ostirala. 18:30 (2. partida). Anoetan.

TRINKETA, BANAKA, N. 2 MAILA

Intza (Olazabal) - Hernani

Larunbata. 15:30 (3. partida). Iruran.

ESKUJ, BINAKA, K. 1. MAILA

Intza - Behar Zana 1

Larunbata 11:00 (2. partida). Michelin pil.

ESKUJ, BINAKA, K. 2. MAILA

Behar Zana 1 - Intza

Ostirala. 17:30 (4. partida). Villabonan.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Gipuzkoa Sortzen - RC Santander

Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA, I. MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Durango RT

Larunbata. 12:00. Atsobakar kirol gunean.

18 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak Eibar RT - Uribealdea

Larunbata. 10:15. Atsobakar kirol gunean.

ATLETISMOA

PROBA LIBREAK

Herriko atletak markak eskuratzeko proba libreei egingo diete aurre.

Larunbata. 15:30. Donostia.

XAKEA

GIPUZKOAKO LIGA, I. MAILA

Taula A - Arrasate Aritutz B

Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lekalean.

GIPUZKOAKO LIGA, II. MAILA

Agustin de Leiza B - Taula B

Larunbata. 16:00. Andoainen.

GIPUZKOAKO LIGA, III. MAILA

Taula C - Astigarraga C

Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lekalean.

KIROL EGOKITUA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ostadar Inklusioa taldeko kideek gupil aulkiko Euskadiko Eslalom txapelketa lehiatuko dute.

Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.

Taula Xake Klubeko taldeak, Ligan puntuak gehitzen

Taula A taldea lehen mailako hirugarren postuan dago; B eta C ekipoak, zortzigarren dira euren kategorietan

Txintxarri

Taldeakako Gipuzkoako txapelketa aurrera doa eta Taula Xake Klubeko kideek puntuak eskuratzeko jarraitzen dute.

Lehen mailako taldeak bakarrik jokatu zuen hilaren 7ko jardunaldia Blas de Lezo kaleko lekalean. Lasarte-Oriako lauhoak Zaleak A ekipoa izan zuen aurrez

aurre eta garaipena erdietsi zuten; hiru neurketa gainditu eta batean parra egin zuten herriko ordezkariak.

Bigarren mailako kideak Donostian Gros I-ren aurka aritu ziren eta taula batean garaipena erdietsi zuten eta beste batean berdinketa.


Taula C taldeak, aldiz, Astigarragara egin zuen bidaia. Aurkariak nagusi izan ziren lau partidetatik hirutan eta bakarra



Taula A kideak, lehia. TXINTXARRI

eskuratu zuten Lasarte-Oriako kideek.

Lehen fasea amaitzeko bi norgehiagoka falta dituzte herriko klubeko ordezkariak. Gaur-gaurkoz Taula A bere mailako hirugarren da; Felix Manso herritarra kide duen Mikel Inmobiliaria da sailkapen buru. Taula B eta C, aldiz, zortzigarren dira. Hilaren 14an jokatu dute hurrengo saioa eta puntu gehiago eskuratzeko lehiatuko dira.



Flores, Garcia, Romero, Martin eta Olaso, podiumean euren dominekin. OSTADAR ATLETISMOA/I. ROMERO/MC OLASO

Herriko atletak, ederki lehiaketaz lehiaketa

Euskadiko zein 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan ederki jardun dira herriko atletak. Hainbat podiumean izan dira eta hala nola, Nahia Garcia, Aitor Martin, Helene Martin eta Mari Carmen Olasok Gipuzkoako edo Euskadiko tituluak irabazi dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak eta korrikalariak errepideko zein pistako hitzordu ezberdinetan izan ziren lehian hilaren 7an eta 8an; ederki aritu ziren.

Ostadar SKTk zortzi kirolari eraman zituen 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan. Horiez

gain, Real Sociedad taldeko Alaia Romero herritarra ere izan zen lehian.

Gaztetxoak ederki aritu ziren eta dominak ere jantzi zituzten (ikus koadroa). Aipatzekoak dira Nahia Garcia eta Aitor Martinen garaipenak jauzi hirukoitzean eta pisu jaurtiketan, baita luzera

jauzian zein pisu jaurtiketan podiumeko bi mailatan izan zirela herriko ordezkariak ere.

Horrez gain, egun berean adin txikiko zein master mailako Jaurtiketa luzeetako Euskadiko txapelketa lehiatu zen Durangon (Bizkaia). Talde urdin-beltzeko Helena Martin 20 urtez azpikoan

16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa

- Amelie Flores (Ostadar SKT):
 - 60 m. hesi lasterketa - 2º
 - Luzera jauzia - 2º
 - Pisu jaurtiketa - 2º
- Nahia Garcia (Ostadar SKT):
 - Jauzi hirukoitza - 1º
 - Altuera jauzia - 2º
 - Luzera jauzia - 3º
- Aitor Martin (Ostadar SKT):
 - Pisu jaurtiketa - 1º
- Xuban Corman (Ostadar SKT):
 - Pisu jaurtiketa - 2º
 - Jauzi hirukoitza - 3º
- Alaia Romero (Real Sociedad):
 - 60 m. lasterketa - 2º

Euskadiko txapelketa

20 urtez azpiko txapelketa

- Helene Martin (Ostadar SKT):
 - Xabalina jaurtiketa - 1º

Master txapelketa

- Mari Carmen Olaso (F-55):
 - 60 m. lasterketa - 2º
 - 200 m. lasterketa - 1º
 - 400 m. lasterketa - 1º
 - 800 m. lasterketa - 1º
 - 3.000 m. lasterketa - 1º

aritu zen xabalinarekin. Ostadar SKTko ordezkariak azken saieran garaipena erdietsi zuen; 29,39 metroetara iritsi zen tresna.

Eta egun bat geroago, Donostiako belodromoak Master mailako Euskadiko txapelketa hartu zuen. Mari Carmen Olaso herritarra bost probetan izan zen lehian 55 urte azpiko mailan eta bostetan izan zen podiumean.

Herritarrak, Gimnastikan

Errepidean ere izan ziren lasterka lasarteoriatarak. Hilaren

8an, Donostian jokatu zen Gimnastika Uliako proba ezberdinetan parte hartu zuen talde handi batek.

45 minutu azpiko 10 kilometroko saioan, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) Xabier Aizpuruak 33.34 egin zituen helmugan. Gaizka Ormazabalek ere lasterketa hasi zuen, baina ezin izan zuen ibilbidea amaitu.

Popularren artean, Mikel Amunarriz izan zen lehen herritarra (42.12) eta bost kilometroko lehian, Mikel Ubegun (18.52).

LOKEko judokak, lehiaketa ezberdinetako lehen postuetan

Lasarte-Oriako Judo taldeko kideak Legazpiko nazioarteko txapelketako podiumean izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judokak azken asteetan lehiatzen lehian dabilta. Legazpian, Urnietan edo Katalunian izan dira herriko klubeko kideak.

Hilaren 7an, kadete mailako Iraia Diez, Ariane Luis, Marco Iriso, Francis, Yago Izquierdo eta Maria Escribano Legazpiko herria nazioarteko txapelketan parte hartu zuten. Ederki borrokatu ziren guztiak eta Diez zein Luis 57 kilo azpiko podiumera igo ziren.

Diezek finala galdu zuen Judo Club San Sebastian taldeko Madidi Arina kidearen aurka; Luisek, aldiz, bigarren aukera jokatu

eta brontzezko domina jantzi zuen Urnietan.

Egun bat geroago, LOKEko infantilek eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren fasean borrokatu zuten.

Hamabost egun lehenago lehen fasea jokatu zuten gaztetxoek eta bi jardunaldietan ederki jardun ziren tatamian. Begiratu koadroa hilaren 7ko emaitzak ikusteko.

Kopan, lehian

Horrez gain, urtarrilaren 24an Iraia Diez kadete mailako Espainiako kopa lehiatu zen El Vendrell, Katalunian. Noelia Tarrico valentziarraren aurka galdu eta lehiatik kanpo geratu zen Diez.



Ezkerrean, infantiletako batzuk; eskuinean, Diez eta Luis, Legazpiko podiumean. LOKE JUDO

Legazpi Herria txapelketa

- Iraia Diez - 2º
- Ariane Luis - 3º

Gipuzkoak txapelketa Infantil maila - 2. fasea

- Martina Miguelez - 2º
- Ainitze Tabuzzi - 3º
- Ivan Barrantes - 3º
- Alba Padrones - 3º

Ipar Martxako hastapen ikastaroa, hilaren 21ean

Ostadar Ipar Martxako taldeak hasiberriei zuzendutako ikastaro berria eskainiko du hilaren 21ean, larunbatarekin. Hipodromoko zubian batuko dira eta 10:00etatik 12:30era saioa egingo dute.

Antolatzaileek jakitera eman dute elkarteak ikastaroa egiteko makilak utziko dizkiela parte hartzaileei.

Izena eman edo informazio gehiago eskuratzeko bi telefono zenbaki eskaini ditu talde urdin-beltzak: 626 59 56 85 eta 943-36 04 33.

Horrez gain, hilaren 22an, Aspanogi elkarteak antolatzen duen Ipar martxa ibilaldian izango dela jakitera eman du Ostadarrek. Urtero moduan, adingabe onkologikoak dituzten familiei babes emango die Lasarte-Oriako taldeak.



Amateur eta eskolarteko lehietan parte hartuko duten LOKEko talde ezberdinak. LOKE GIMANSTIKA

LOKEko gimnastek lehen lehieiei aurre egin diete

Amateur eta eskolarteko mailako gimnastek denboraldiko lehen saioak burutu dituzte azken asteetan. Guztira LOKEko hamar talde, biko bat eta bakarkako bat izango dira lehiaren kategoria ezberdinetan. Araudi aldaketari ere neurria hartu behar izan diote

Txintxarri

Hilabetetako lanaren ostean, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak tapizera atara dira mimoz prestatutako dantzak erakustera. Urtarrilaren 31n amateur mailako kideek eman zioten hasiera txapelketa denboraldiari; lehen fasea jokatu zuten Bergaran. Hilaren 7an eta 8an, aldiz, eskolarteko lehia hasi zuten Donostian gimnasia erritmiko taldeko kide gazteenek.

Maila ezberdinetan lehiatuko dira aurtan Lasarte-Oriako ordezkariak, bai taldean baita bakarka ere.

Eskolarteko txapelketan ordezkariak mardula aurkeztu du LOKEk. Infantiletako maila bakoitzean taldea izango du lehiaren eta Alebin C kategorian lau ekipo izango dira borrokan. Bakarka edo bikoteka, aldiz, Oihane Portuburu/Laia Suberbiola eta Aiala Jimenez infantil A lehiaren eginko dute dantza.

Lehen jardunaldian, alebinek pilotarekin eta esku hutsik egin zuten lan, infantilek uztaiarekin eta bakarkako kideek sokarekin duten trebezia erakutsi zuten.

Amateur mailan hiru talde aurkeztu ditu LOKEk; bi jubeniletan eta bata kadeteetan. Bergarako saioan, zaharrenek

Eskolarteko txapelketa Taldeak

- Infantil A - LOKE - 5°
- Infantil B - LOKE - 12°
- Infantil C - LOKE - 4°
- Alebin C
- Landaberri E1 - 10°
- Landaberri E2 - 18°
- Landaberri M1 - 21°
- Landaberri M2 - 39°

Bakarka

- Infantil A
- Oihane Portuburu - 4°
- Aiala Jimenez - 5°

Amateur txapelketa

- Jubenil A - LOKE - 8°
- Jubenil B - LOKE - 5°
- Kadete B - LOKE - 15°

estreinako borrekin egin zuten dantza; kadeteak, aldiz, pilota-rekin.

Araudi berria

LOKEko prestatzaileek adierazi digutenez, aurtan araudi aldaketa izan dute eta horretara moldatu dituzte dantza guztiak. Ondorioz, jubenilek lehenengoz egin dute lan borrekin lehen fasean eta prestakuntza zaila izan dela aipatu dute.



Intzako gomazko palako bikoa, EPLE2ren aurka lehiaren. TXINTXARRI

Gomazko palako kideek, garaipen bikoitza Loidibarrenen

Udaberri txapelketako eta banakako zazpita arteko lehiaketako jardunaldiei egin diete aurre Intzako kideek

Txintxarri

Gomazko pala jardunaldiaz gozatu ahal izan zuten zaletuek hilaren 7an, Loidibarren pilotalekuan. Intza KEko ordezkariak Udaberri txapelketako jardunaldia eta banakako lehiako final

zortzirenak izan zituzten jokoa eta bietan etxeko aldeko emaitza izan zen.

Udaberriko txapelketako 2. Nagusien mailako neurraketa jokatu zen lehenengo. Jagoba Mendizabal eta Luken Carbayeda

bikoak tantoak borrokatu behar izan zituen EPLE 2 bi jokoa (10-8 eta 10-8) garaitzeko.

Zazpita arteko banakako txapelketan, aldiz, Iker Artetxe ongi jokatu Txost taldeko Flores 25-12 gainditu zuen. Garaipenari esker, lehiaketan aurrera egin du Intzako ordezkariak eta gaur, hilaren 13an, Kuku elkarteko Luisa kidea izango du aurrez aurre finalerdietarako txartela eskuratzeko.

Denetarik emaitzak

Gainerako Intzako kideek emaitza ezberdinak izan zituzten. Kadete 2. kategoriako bikoak lehia estua izan zuen Gaztelupe 1ekin; 2-1 (10-9, 6-10 eta 5-2) irabazi zuten Intzako Lopez eta Maizek.

Kadete emakumezkoen lehiaren, aldiz, Iparragirre eta Etxezarretak 0-2 (5-10 eta 8-10) galdu zuten Mundaroren aurka. Eta trinketearen ere ez zuen zortirik izan Olazabalek; Behar Zanak Iparragirre nagusi izan zen partidaren, hasi eta buka, eta 40-10 gailendu zen.

Euskadiko Eslalom txapelketa eta pilota, hilaren 15ean

Kirol ekimenetarako sarrerak doakoak dira. Antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte joatera

Txintxarri

Michelin kirol guneak hilaren 15ean bi kirol hitzordu garrantzitsu hartuko ditu. 10:00ak aldera, Ostadar SKTKo Inklusio sailak antolatuta gorpildun aulkiko Euskadiko Eslalom Txapelketa jokatu da eta eguerdian, berriz, Emakumezko Binakako txapelketako partidak.

Euskadin erreferentzia zko ekitaldi inklusiboa izango da lehenik Lasarte-Oriako kirol gunean eta eslalom modalitateko Erkidego osoko kirolariak bilduko dira Michelinean.

Antolatzaileen arabera, txapelketaren bidez Ostadar Inklusioak kirol egokitua sustatu nahi du, baita inklusioa eta berdintasuna ardatz izango dituen kirol eredu bat bultzatu ere.

Eguerdian, aldiz, emakumezkoen txanda izango da pilotalekuan. Goi mailako bi neurraketa izango dira eta ligaxkak azken jardunaldietako bat izanik, finalerdietarako txartela eskuratzeko puntuak izango dituzte jokoa. Lehen Zabaleta-Bertiz eta Arrizabalaga-Bergara bikoteak izango dira aurrez aurre eta bigarrenen, Ruiz de Infante-Mendizabal eta Etxegarai-Capellan.

Eliteko neurraketa aurrekari, gazte mailako partida izango da; Itsaso Iparragirre herritarra ariko da. Izar Etxezarreta lagun duela June Zabala eta Intza Arruti izango dituzte aurkari.

Sarrerak doakoak izanik, antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte kirol gunera, kirolariak animatzera.

ZORION AGURRAK



Oihana
Zorionak Oihani zure 10. urtebetzean; aita, ama eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!



Alba
Zorionak Alba! 6 muxu erraldoi aitabxo, amatxo eta Noaren partetik. Asko maite zaitugu!



Lorea
Zorionak Titi! Zuk bai dezula flow(er)-a!! Zure astelehenetako fotosintesiak, indarra pilatu eta aste guztirako ematen diguzu energia!!

ESKUTITZA

Animatu zaitetz gurekin saretzera!

ASUNAK, LASARTE-ORIAKO TALDE FEMINISTA

2020. urtean sortu zen aSUnak; Lasarte-Oriako talde feminista. Besteak beste, herrian zegoen hutsuneari erantzun eta praktika feministak aurrera eramateko helburuarekin; bai talde barnera zein herriko hainbat esparruetara begira. Bada denbora ordea, talde honen izenean herriarentzat ekin-tzak antolatzeari utzi zitzaizola barne indar eta kanpo erantzun faltagatik.

Hori horrela, azkenaldiko faxismoaren oldarraldi nabarmenaren aurrean feminismoaren beharra ikusi dugularik, herriko gazte feminista batzuk egun seinalatuak antolatzeko batzen aritu gara azken hila-beteotan. Orain ordea, aurre-rapausoak emateko garaia iritsi da; egoera ongi aztertu ostean, aSUnak taldearen jardunarekin jarraitzea erabaki dugu.

Horregatik, gure jardunarekiko interesa duen eta herri-

gintzan parte hartzeko interesa izango lukeen feminista orori gurekin batzeko gonbita zabaltu nahi genioke, bai aSUnak taldera eta baita martxoak 8aren harira antolatuko diren asanblada feministetara ere. Izan ere, egun seinalatua ate joka dugun honetan, asanblada irekiak egitea pentsatu dugu, denon artean gauza indartsuagoak egin ditzakegulako.

Lehen asanblada irekia otsailaren 16an (astelehena) izango da, arratsaldeko 19:30ean, Xirimirri elkartearen Hurrengo asanblada, ekintzak eta abar denon artean erabakiko ditugu. Egon adi gure sare sozialetara, bertan emango baitugu guztien berri.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
 - Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
 - Bidali zorion agurra formularioz.
 - Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.
- Posta elektronikoa**
- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 13	DE MIGUEL
LARUNBATA, 14	DE ORUE
IGANDEA, 15	DE ORUE
ASTELEHENA, 16	LASA
ASTEARTEA, 17	GIL
ASTEAZKENA, 18	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 19	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Castilla-Larburu farmazia:
Urbietza kalea 7, Hernani. 943-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

TXINTXARRI aldizkariak diseinu berria izango du hilaren 20tik aurrera

2026-02-05 OSTIRALA
17:22:25 BERBA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TTXINTXARRI.EUS

txintxarri

EUSKARA

Alaitasuna, kolorea eta sustraiak nagusi aurtengo Euskal Inauterietan

Hilaren 12tik 17ra ospatuko ditugu Inauteriak; udalak, konpartsek eta eragileek egitarau oparoa aurkeztu dute / 8-9

OKONOMIA

'Empalabramiento' izeneko programa martxan jarri du udalak, emakumeen zentroan / 5

KULTURA

Okendo Zinema Taldeko kideen Euskal Dokumentalen Zikloa gaur (hilak 6) hasiko da; seigarrena da / 6

POLITIKA

Lasarte-Oriako Igeriariak podium eta marka berriak, Gipuzkoako txapelketan / 11

Giltza, eskutik-eskura

Dendarientzako ondorengotza programa aurkeztu dute / 4

AZKEN EGUNAK

MERKEALDIA

2MÓ 99€ (lehen-109€)

betaurreko graduatuak batzuk eguzkitakoak izan daitezke

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA

PLAN VEO
Giltza hurrengo publikazio berriak

Hitzordua eskatu

www.multioplicas.com

**TXURI URDIN-
era goazi!**

Otsailaren 21ean

**Irteera: 16:30
Buelta: 20:00
Hipodromoko parking-ean**

Askaria, galtzerdi potoloak eta KASKOA (txirringa) eraman behar da.


Prezioak:
16€ Ttakuneko bazkideak
19€ Ttakuneko ez bazkideak

Plazak mugatuak dira!

Izena emateko: 695 78 53 92 (WHATSAPP)
aisia@ttakun.eus, 943-37 14 48 EDO TTAKUNEN)

Ttaku

HIRIBUSA



Eskola egunak			
Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak				
Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
SALDU
Etxea saltzen dut. Bi gela gehi sala, komuna eta sukaldea, dena jantzia eta kanpo alderuntz; eguzkitsua. 4. pisua igogailuarekin. Harremanetarako, 687 35 50.95.
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.
Trastelekua saltzen dut, 20 m2., sotoa da, Sasoetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.
EROSKETA
Garaje bat erosi nahi dut Mitxelín kirol gunearen azpian. 629 77 33 87 (Aitor).
ERRENTAN HARTU
Lasarte-Orian etxea alokairuan hartuko nuke. Lau lagunentzako. Dembora luzerako. Lanean gaude. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.
Herri erdigunean garaje bat alokairuan hartzeko prest nago. Ha-

rremanetarako zenbakia: 688 89 87 32.
LANA
ESKAINTZA
Interna modura lan egiteko pertsona behar dugu, Soziosanitario tituluduna. 685 70 44 40 edo 635 20 73 86.
ESKAERA
Lan bila nabil: ordu, lanaldi osoak, externa moduan, garbiketa edo adinekoren zaintza. Dokumentazioa dut, baita titulu soziosanitarioa ere. Pertsona serioak bakarrik deitu edo WhatsApp mezua bidali honako zenbakira: 666 22 44 69.
Interna edo externa moduan lan egiteko prest nago. Esperientzia eta gomendio gutuna ditut, baita diploma soziosanitarioa ere. 618 81 43 63.
Etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta dokumentazioa ditut. 687 35 50 95.
Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edozein lanerako prest. Asteburuetan ere. 631916924, 631912928 (Bruno).

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
10 urteko neska bati Euskara eta Matematika emateko neska bat behar dut. Astean egun pare bat. Harremanetarako, 687 35 50 95.
SALEROSKETA
Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako, 667 23 23 00.
ZERBITZUAK
Reiki saioak eskaintzen ditut. 677 08 61 47.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitaz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldia eta
Lierni Apaolaza
Urdanpilleta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni
Rekondo, Gorka Alvarez,
Aizpea Amas, Maitane
Rebe, Jexux Artetxe eta
Oihane Puertas.

Banatazaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.
Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Inauteriak

Euskal Inauteriak ospatzeko egitaraua prestatu dute Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkartek eta zenbait norbanakok nahiz eragilek:

16:45ean, txokolate jana eta jolasak Okendo plazan.

17:30ean, erromeria, Okendon.

19:00etan, Kaxkamalo txantxoa erretzea, Okendon.

Eguraldi txarra egiten badu, ekimenak Oriarte Landaberri institutuko patioan izango dira. **Okendo plaza, 16:45ean.**

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan, *Esto no es Hollywood* filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. Proiektzioaren ostean solasaldia egingo dute zuzendariarekin. **Kultur etxea, 20:00etan.**

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Literatura

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako asteroko ipuin kontaketa saioa. Gurasoekin batera parte hartuko dute txikiek. **Udal Liburutegia, 11:00etan.**

LASARTE-ORIA Inauteriak

Jarduera hauek denak egingo dituzte egun handian, Inauteri larunbatean:

12:00etan, Oaintxe in deu! txarangaren kalejira, Okendo plazatik.

12:40ean, Okendon, konpartsetako kideen aurkezpenak (Biyak Bat, Intzak Parranda, Jalgune, La Tribu eta Sasoeta Sasoian). Ondoren, mozerro lehiaketako partaideen desfilea.

14:00etan, konpartsetako kideen bazkaria, Antonio Mercero guneko ondoko karpan. Gero, Super Bingoa.

17:30ean, konpartsen desfilea eta furgoneta musikaduna, herrian barrena. Okendora itzultzean, mozerro lehiaketetako eta konpartsen arteko sari banaketa.

20:00etan, Arranopola gazte txarangaren kalejira, Okendotik.

**LASARTE-ORIA Inauteriak**

Gaurtik (hilak 13) hasi eta datorren asteartera arte Inauteriak ospatuko ditugu herrian, jarduera ugariren bitartez. Horietan azkena sardinaren ehorzketa eta erreketak izango da.

Hilaren 13tik 17ra, goizetik iluntzera, herrian barrena.

23:00etatik 02:00etara, disko jaia, karpan.

Herrian barrena, 12:00etatik aurrera.

**LASARTE-ORIA Inauteriak**

Sorgin Jaiak-eko kideek Inauteri larunbata ospatzeko egitarautxoa prestatu dute:

12:30ean, bermuta eta argazkia, Kale Nagusian.

14:30ean, sorgin bazkaria, Okendo plazan. Ondoren, bazkaloste girotua. **Herrian barrena, 12:30ean hasita.**

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Inauteriak

Inauteri igandea ospatuko dute:

12:00etatik 13:30era, LOZETeko buruhandiekin nahiz erraldoiekin eta Oaintxe in deu! txarangakoekin kalejira, herrian barrena.

18:30ean, Ibai Berriak taldearen kontzertua, Antonio Mercero guneko alboko karpan.

Herrian barrena, 12:00etan.

ixteko. Ondoren, LOZET elkartearen zezensuzkoak Kale Nagusian barrena ibiliko dira.

Okendo plazatik abiatuta, 18:00etan.

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA Literatura

Frederik Peeters idazlearen *Pilula urdinak* lana jorratuko dute literatura txokoko kideek. Aintzane Usandizaga idazleak dinamizatuko du saioa. Talde horretako kideek gogorazi dute ez dela beharrezkoa hilabete bakoitzerako hautatutako liburua osorik irakurtzea.

Kultur etxeko 3. solairuko bilera gela, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Hilabete honetako opera zikloaren barruan *La Traviata* ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute, Londres hirian dagoen (Erresuma Batua) The Royal Opera areto entzutetsuko saioa gure herrira ekarrita. Sarrerek 7,5 euro balio dute aurrez erosiz gero; proiektzioaren egunean bertan eskuratzeko, berriz, 9 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek. **Kultur etxea, 19:00etan.**

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek *Palestina eta Ekialde Hurbila sutan (2023-2024)* wiki-liburua aurkeztuko du. Gatazka "hotz, teknifikatu eta deshumanizatu" baten harira Euskal Wikipedian argitaratutako 25 artikulua bildu ditu (sei ataletan sailkatuta), Iñaki Alegriarekin batera sustatu duen egitasmoan.

Antonio Mercero aretoa, 19:00etatik aurrera.

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Eskualdean bizi eta 12 eta 16 urte artean dituzten gazteentzako Beat-Eroak ekimenaren barruan, rap tailerra eta lehiaketa egingo dituzte.

Gaztelekua, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan, *Arg(h)itzen* lana emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. Proiektzioaren ostean solasaldia egingo dute zuzendariarekin. **Kultur etxea, 20:00etan.**

LARUNBATA 21

LASARTE-ORIA Literatura

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako asteroko ipuin kontaketa saioa. Gurasoekin batera parte hartuko dute txikiek. **Udal Liburutegia, 11:00etan.**

LASARTE-ORIA Literatura

Literatur txokokoek antolatutako bertso bazkari literarioa aurrera eramango dute. Otorduaren ostean koplak ariko dira Ane Labaka, Miren Artetxe eta Onintza Enbeita; Leire Vargasek jarriko dizkie gaiak. **Xirimiri elkarte, 14:00etan.**

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA Zinema

Oilaskoerbi, marmotaren sekretua filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. **Kultur etxea, 17:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan *Akelarre: marearen kontra* lana emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 19:30ean.**

ASTELEHENA 23

LASARTE-ORIA Zinema

CIMASUB Itsaspeko XVIII. Zinema Zikloko hirugarren emanaldi irekia egingo dute, urrezkoa. Sarrera doakoa da auditorioko eserlekuak bete arte. **Kultur etxea, 19:00etan.**

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA Euskara

24. Korrika Kulturala ekimenaren baitan *Ikimilikilik Vol.2* antzezlanaren emanaldia antolatu du Muntteri AEK euskaltegiak. Intza Alkain herritarra da aktoreetako bat. Sarrera doakoa da baina joan nahi dutenek aurrez gonbidapenak hartu behar dituzte kultur etxe sarreran. **Kultur etxea, 19:00etan.**





Ione Artola jostunaren jarraibideak arretaz gauzatu zituzten parte hartzaileek. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Euskal Inauteriak txukun eta dotore josi dituzte

Gaurko (hilak 13) ospakizunean erabiltzeko txantxo jantzi dotoreak prestatu dituzte Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak lankidetzan antolatutako tailerrean parte hartu duten herritarrek. Ione Artola jostunak erakutsi die lana nola egin, urratsez urrats

Txintxarri


Basotik gizakituta etorriko diren zomorroekin urteroko ituna berrituko dugu gaur, hilak 13, gure uztak bakean utzi ditzaten eta urtebetez beste gauza txar bakar bat ere gerta ez dadin. Berrespen hori gogotik ospatzeko modukoa denez, Euskal Inauterien atarian txantxo jantzi dotoreak prestatu dituzte berriki Ione Artola jostunak gidatutako tailerrean parte hartu duten herritarrek.

Okendo plaza edo Oriarte Landaberri institutuko patioa (eguraldi txarra egiten badu) erabiliko dute Euskal Inauterietako akordioa berresteko. Aurtengo uzta ona izateko eta zorigaizto-ko gertakaririk ez izateko, mozorrotuta etorriko diren zomorroi haxe ordainduko diegu, ituna hautsi ez dezaten: ehun urrezko dukatu; 50na kilo odolki eta lukainka; 30na kilo gari, arto eta sagar; hogeit ardo kupel; eta hiru sagardo barrika. Ondoren, gizakiek eta mozorroek elkarrekin dantzatuko dute eta, bide batez, Ama Lurra esnatzen saiatuko dira. Amaitzeko, joan den urteko akordioa errespetatu

ez zuen Kaxkamalo txantxo gaiztoa sutan kiskaliko dute.

Ttakun Kultur Elkarteak, udalak eta herriko zenbait eragilek prestatu duten egitaraua 16:45ean hasiko da: gaztetxoek txokolate beroa askaldu eta ongi pasatzeko jolasak izango dituzte. 17:30ean helduak batuko dira festara eta erromeria hasiko da; dantzatu bitartean, gure herriko Euskal Inauteriak testuinguruan jartzeko grabazioak erreproduzituko dituzte –David Egizabalek eta Juan Luis Eizmendik idatzitako ipuinean oinarritu dira; bi trama uztartu dituzte kontakizun horretan. Azkenik, Kaxkamalo txantxoaren erreketeta 19:00etan gauzatu dute.

Antolatzaileek bereziki azpimarratu dute Euskal Inauterien balioa: "Jaiaren ezaugarri indartsuenetakoa bat dira; hasieraren arima". Hori horrela, gaurko beste ekimenik ez programatzea erabaki dute. Bihar, etzi, etzidamu eta astearterako antolatu dituzten jarduera guztiei buruzko xehetasunak 15. orriko Agenda atalean jaso ditugu.



EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 13 (ostirala) · LASARTE-ORIA

OKENDO PLAZAN

16:45 | Txokolatada

18:45 | Txantxoekin dantzan erromerian

19:00 | Kaxkamalo erre + Agurra




* Eguraldi txarra eginez gero Oriarte Landaberri eraikineko patioan ospatuko da